

### 3. MAILAKO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOARI PLANTO EGINGO DIOGU!

Aurten 3. mailako ebaluazio diagnostikoa egingo da Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ikastetxeetan.

Nafarroan, dagoeneko, pilotajea eginda maiatzeko 4 egunetan zehar ikastetxe guztietan egin beharko dute 3. mailako azterketa. SORTZEN elkartearen ekimenez eta Herrikoa guraso elkartearen babesarekin 1000 sinadura aurkeztu dira 3. mailako froga horren kontra. Txalotzeko ekimena.

EAERI dagokionez, konkretuki, 30 ikastetxetan pilotajea egin nahi da. Informazio askorik ez badugu ere, jakin badakigu, iturri juridikoen zein Uriarte Hezkuntza Sailburuak hala esanda ere, azterketa hori ez egiteak **ez duela inongo ondorio akademikorik suposatuko**.

Gauzak horrela, gure helburuan berresten gara Hezkuntza Plataformen Topagunea-n: **inposatu nahi duguten 3. mailako ebaluazio diagnostikoa planto egin nahi diogu eta arrazoiak oso argi ditugu:**

1. Ikasleria sailkatzea helburu duen oztopoz beteriko lasterketa bat da. Etiketa soil bat da.
2. Bereizkeria ekar lezakeen eskolen arteko rankingak bultzatu litzake.
3. Bukaerako notak du garrantzia, ez ikasketa prozesu integralak.
4. Ikasle guztientzat froga berdinak izanik, estandarizazioa bilatzen du testuinguru hurbila ukatuz.
5. Ebaluazio zentralizatuak dira eta uniformazioa dute helburu.
6. Soilik ikasgai instrumentalak ebaluatzen dira (hizkuntzak, mate eta zientziak)
7. Proba hauek prestatzeko ikastetxeak "akademia" bilakatzea ekar dezake.
8. Enpresek azterketa hauek prestatzeko aukera izango dute hezkuntzaren pribatizazioa ekarriz.
9. Inposatuak izango dira.

Honetaz gain, **guk gure ebaluazio propioak izateko eskubidea aldarrikatu nahi dugu**. Ez dugu inork gure ebaluazioak kanpotik erabakitzerik nahi, guk gure ebaluazioak bertan erabaki nahi ditugu irizpide hauen arabera:

1. Ikasleen ebaluazio jarraia, ikaskuntza prozesu osoa eta aniztasuna kontutan hartuko duena.
2. Ikastetxeen barne ebaluazioa hobekuntzarako zutabe gisa ezarriko duena:
  - Ikastetxeen hezkuntza komunitatea ebaluazio agentea izanen da eta kanpoko agenteek (ikuskaritza, ...) aholkularitza lana izanen duena.
  - Hezkuntza kalitatean eragiten duten alderdi guztiak (ikastetxearen antolakuntza alderdiak, ...) kontuan izanen dituena eta gela barruan zein kanpoan gertatzen diren prozesuetan oinarrituko dena.
  - Ikastetxeen sailkapena helburu ez duena.
  - Eta prozesu horren bukaeran ateratako ondorioak irakasleen formakuntza-plana gidatuko duena eta ondoren planteatzen diren alderdien inguruan hausnarketa sustatuko duena: ratioak, irakasleen lan baldintzak, familien parte hartzea ebaluazioan, geletan erabilitako metodologiak, curriculum, eskolen eta espazioen antolaketa, eta orokorrean gure ikasleen hezkuntzan eragina duten alderdi guztiak.

Hau guztia Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan gauden hezkuntza bilgune, guraso elkarte eta eragile ezberdinok garatuko dugu. Gure asmoa Eskola Kontseilu (sare publikoa) zein Artekaitza Kontseiluetara (ikastolak), masiboki, idazki bat banatzea izango da. Ondoren, ikastetxeetako erabaki organo horietan inposatu nahi zaigun 3. mailako ebaluazioaren kontrako jarrera adostuko da eta baita berau ez egiteko konpromiso hartu ere. Guzti hauekin, ekainean jakin araziko dugu lortutako babesa.

Hala ere, bitarte hurbilean, 3. mailako azterketa horrekiko gure desadostasuna agertu nahi dugu, desobedituko dugu.

Azterketa egin nahi diguten egun horretan ez ditugu gure ikasleak klasera eramango edota bestelako jarrerak hartuko ditugu aipatutako froga ez egiteko.

Jarrera horren berri eman eta hezkuntza komunitatetik harago ere herritar ororen kezka dela irudikatzeko, agerraldi masiboa antolatu dugu maiatzaren 9an. Horren ostean, gainera, lagun ditugun Herrialde Katalanetako eskola intsumituetako lagunekin solasaldia egingo dugu, desobedientzia posible izateaz gain, egingarri ere badela ikusteko.

**Maiatzak 9 · Durangoko Plateruena Antzokia · 11:30ean**  
**AGERRALDI MASIBOA**

**11:45ean · Solasaldia**  
**HERRIALDE KATALANETAKO ESKOLA INTSUMITUAK**  
**(Xarxa d'escoles insubmises)**



**HEZKUNTZA PLATAFORMEN TOPAGUNEA**

[hezkuntzaplataforma.topagunea@gmail.com](mailto:hezkuntzaplataforma.topagunea@gmail.com)

[www.hezkuntzaplataformatopagunea.blogspot.com.es](http://www.hezkuntzaplataformatopagunea.blogspot.com.es)

[@Hezk\\_Topagunea](#)